

Ikerketaren arloko gastuen justifikazioari buruzko argibideak, koronabirusaren osasun-alerta dela eta

UPV/EHUk gomendio batzuk argitaratu ditu bere webgunean, eta honako helbide honetan eskura daitezke:

<https://www.ehu.es/eu/-/informacion-de-la-situacion-del-coronavirus-o-covid-19>

Nolanahi ere, **guztiz ezinbestekoa ez bada ez bidaiatzea** gomendatzen da, bereziki arrisku eremuetara bada. Arrisku eremuetara joan behar izanez gero, ikerketaren arloko errektoreordearen berariazko eta idatzizko baimena beharko da, aldeaz aurretik eskaera arrazoitua eginda eta saileko zuzendariaren oniritziarekin.

UPV/EHUko deialdien gastuak

Kasu partikular bakoitza aztertuko da, baina jarraian kasu ohikoenetarako jarraibide orokor batzuk ematen dira:

- Bidaia oraindik kontratatu ez den kongresuetara joateko, beharrezkoa izango da ezerezte-aseguru bat kontratatzea, bidaia balio gabetu behar bada ere. Ekitaldia egiten ez bada, ordainduko diren gastuak aseguru honen kontratazioari dagozkionak izango dira, eta eskatzaileak itzuli egin beharko du zenbateko horren eta kontura sartutako lehenengo % 50aren arteko aldea. Ez dira ordainduko ezeztatze-asegurua kontratatu ez duten hasi gabeko bidaien gastuak. Nolanahi ere, balizko osasun-arriskuak estaliko dituen osasun-aseguru batekin atzerria bidaiatzea gomendatzen da. Horretarako, UPV/EHUk IBILI BEREZI izeneko aseguru bat jartzen du bere langileen eskura. Aseguru hori Ondare Zerbitzuaren bidez kontratatu behar da:
<https://www.ehu.es/eu/web/kontratazioa/aseguruak>
- Argibide hauen aurretik kontratatutako kongresuetarako bidaien kasuan, bidaia horiek geroago balio gabetzen badira, eragindako gastuak ordainduko dira, betiere ezinbesteko kausa badago eta hori bermatzen duen frogagiri bat badago.
- Ikastaroen matrikula argibide hauen aurretik ordaindu bada eta ondoren balio gabetzen bada, matrikula hori ordainduko da, baldin eta ekitaldia deitu duen erakundeak ez badu ezinbesteko arrazoi horrengatik zenbatekoa itzultzen, eta ezeztapenaren arrazoi eta erakundeak itzultzeari uko egin diola egiaztatzen duen frogagiri badago.
- Matrikula argibide hauen ondoren ordaintzen den ikastaroetan, eskatzaileak ziurtatu beharko du erakundeak matrikula horren zenbatekoa itzultzeko konpromisoa hartzen duela, ezinbestekoa eragindako etetearen kasuan. Ikastaroen kasuan, deialdiak ez du ez lekualdatzerik ez egonaldirik ordaintzen; beraz, gai hori deialditik kanpo dago, eta eskatzaileak berak kudeatu behar du bere irizpidearen arabera.

Aclaraciones sobre justificación de gastos en el ámbito de la investigación por motivo de la alerta sanitaria por el coronavirus

La UPV/EHU ha publicado en su página Web una serie de recomendaciones, a las que se accede en la siguiente dirección:

<https://www.ehu.es/es/-/informacion-de-la-situacion-del-coronavirus-o-covid-19>

En todo caso, se recomienda **no viajar si no es absolutamente imprescindible**, especialmente si es a zonas de riesgo. En el caso de desplazamientos a zonas de riesgo requerirá una autorización expresa y por escrito del Vicerrector de Investigación, previa solicitud motivada con el visto bueno del Director o Directora de departamento.

Gastos de convocatorias de la UPV/EHU

Se analizará cada caso particular, pero a continuación se dan unas pautas generales para los casos más habituales:

- En el caso de asistencias a congresos en los que aún no se haya contratado el viaje, será necesario contratar un seguro de cancelación, por si tuviera que anularse el mismo. En caso de no celebrarse el evento, los gastos que se pagarán serán los correspondientes a la contratación de este seguro, debiendo proceder el/la solicitante a la devolución de la diferencia de este importe respecto al primer 50 % ingresado a cuenta. No se pagarán gastos de viajes no iniciados que no hayan contratado el seguro de cancelación. En todo caso se aconseja viajar al extranjero con un seguro de salud que cubra los posibles riesgos sanitarios. A estos efectos, la UPV/EHU pone a disposición de su personal un seguro denominado IBILI BEREZI y cuya contratación se debe realizar a través del Servicio de Patrimonio:
<https://www.ehu.es/es/web/kontratazioa/aseguruak>
- En el caso de viajes a congresos contratados con anterioridad a la presente notificación, y que sean anulados posteriormente, se abonarán los gastos ocasionados, siempre que exista causa de fuerza mayor y exista un justificante que lo avale.
- En el caso de cursos cuya matrícula haya sido abonada con anterioridad a la presente notificación, y que sean anulados posteriormente, se abonará dicha matrícula, siempre que la entidad convocante del evento no reembolse el importe por esta causa de fuerza mayor, y exista un justificante que avale la causa de la anulación y la negativa de devolución de la entidad.
- En los cursos cuya matrícula se pague con posterioridad a esta notificación, el/la solicitante deberá asegurarse de que la entidad se compromete a la devolución del importe de dicha matrícula, en caso de suspensión por fuerza mayor. En el caso de los cursos, la convocatoria no cubre traslados ni estancias, por lo que esta cuestión es ajena a la misma y debe ser el/la solicitante quien la gestione de acuerdo a su criterio.